

4/2021 AKTA
NAFARROAKO UDALERRIEN ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOAREN
BATZORDE BETEARAZLEAK MAIATZAREN 11n EGINDAKO BILKURA

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA:

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn., Azkoiengo alkatea

1. LEHENDAKARIORDEA:

Mario Fabo Calero jn., Martzillako alkatea

2. LEHENDAKARIORDEA:

Ander Oroz Casimiro jn., Antsoaingo alkatea

BATZORDEKIDEAK:

Aitor Larraza Carrera jn., Irurtzungo alkatea
Oihan Mendo Goñi jn., Garesko alkatea
Jesús Esparza Iriarte jn., Kasedako alkatea
M^a Carmen Segura Moreno and., Alesbesko alkatea
Jesús María Arrizubieta Astiz jn., Tafallako alkatea
Raúl Maiza González jn., Berriozarko alkatea
Óscar Bea Trincado jn., Cintruenigoko alkatea
David Alvarez Yanguas jn., Castejongo alkatea.
Enrique Maya Miranda jn., Iruñeko alkatea.
Alejandro Toquero Gil jn., Tuterako alkatea.
Pedro José Soto Eguren jn., Gesalazko alkatea.
Manuel Romero Pardo jn., Aranguren Ibarreko alkatea
Fernando Ferrer Molina jn., Erriberako Mankomunitateko lehendakaria
Esther Lacasta Pérez-Illzarbe and., Basaburuako alkatea
Mikel Zabaleta Aramendía jn., Leitzako alkatea
Ángel Martín Unzue Ayanz jn., Agoizko Alkatea
Yolanda González García and., Vianako alkatea.
David Oroz Alonso jn., Urdaingo alkatea

Ezin etorria adierazi dute:

Mikel Landabere Villanueva jn., Aurizberriko Kontzejuko burua
Sabina García Olmeda and., Izarbeibarko Mankomunitateko lehendakaria
Itziar Semberoz Garralda and., Espartza Zaraitzuko alkatea

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hogeita bateko maiatzaren hamaikan, goizeko hamabietan, era telematikoa Zoom aplikazioa erabilita, aldamenen adierazitakoak bildu dira Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDA

- 1.- Aurreko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.
- 2.- Batzorde eta Kontseilu sektorialeiei buruzko informazioa.
- 3.- NUKFri atxikitze eskaerak.
- 4.- Hitzarmena NABlrekin toki entitateetan berdintasun politikak sustatzeko.
- 5.- Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra Sustatzeko Bulegoaren jarduerak egiteko esparru-hitzarmena.
- 6.- Protokoloa Kuna Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkartearekin.
- 7.- Protokoloa Nafarroako Gobernuarekin 2021eko herrietako jaien eta kultur jardueren inguruan.
- 8.- Laguntza- eta orientazio-zerbitzua kontratatzea Next Generation EU programaren eta Urte Anitzeko Finantza-esparruaren inguruan.
- 9.- Lehendakariaren informazioa.
- 10.- Galde-eskeak.

1. PUNTUA- Apirilaren 13ko ohiko bilkuraren aktaren berri ematea eta hura onestea.

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldez aurretik irakurri beharrik gabe, lehendakariak galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan.

Inork ez du oharrik egin; horrenbestez,

ERABAKI DA:

2021eko apirilaren 13an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Batzorde eta kontseilu sektorialeko buruzko informazioa.

Honako Batzorde eta Kontseiluen berri eman dute:

- **Miguel Induráin Fundazioaren Patronatua, (2021/04/22).** Fundazioaren kudeatzaile berria aurkeztu zuten.
- **Nafarroako Eskola Kontseilua (Osoko Bilkura), (2021/04/28).** Eskola-mapa aldatzen duen Foru Agindu baten berri eman zuten. Aginduak zenbait atxikimendu-aldaketa ezartzen ditu toki entitateek edo ikastetxeek eskatuta. Aldeko txostena eman zitzaion.
- **Toki Prestakuntzarako Batzorde Paritarioa, (2021/04/30).** Aurtengo zuzkidura onetsi zuten: 148.600 euro.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea, (2021/05/03).** 2019an Foru Dekretu bidez onetsitako eskola-mapa aldatzeko Foru Aginduari aldeko txostena eman zitzaion.
- **Navarra FEDER Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordea, (2021/05/10).** Deialdiak 2014-2020 epealdiko Programa Operatiboaren egokitzapena aurreikusten zuen, Berreskuratze Planaren esparruan onetsitako REACT-EU Planaren bidez handitutako zuzkidurak barne hartzeko. Nafarroari 148 milioi euro egokitu dizkiote eta, dagoeneko, programaturik daude. Zenbateko hori pandemiari lotutako osasun gastuetarako eta ikastetxeak zaharberritu eta eraikitzeko izanen da. NUKFK FEMPEk egindako eskaera helarazi dio Batzordeari REACT-EU Funtsen %15, gutxienez, toki entitateei esleitzen diezaizuten.

Egindako programazioan, toki sektoreari 0,5 milioi euroko zuzkidura txiki bat esleitu diote araztegietan energia-iturri berriztagarriak jartzeko. Halaber, funtsa 6 milioi euro gehiago handitzea aurreikusia dago babesturiko enplegu sozialaren alorrerako (kasu honetan, Europako Funts Sozialaren bidez).

- **Nafarroako Kultura eta Arteen Kontseilua, (2021/05/10).** Zenbait lantalde osatu ziren kontseiluaren barruan, besteak beste, liburutegien lantaldea.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA.- NUKFri atxikitzeako eskaerak.

Etxarrengo eta Etxeberriko Kontzejuek NUKFri atxikitzeako egindako eskaeraren berri eman da.

ERABAKI DA:

Entitate horien eskaera aintzat hartzea. Horrenbestez, entitateak NUKFko kide izatera igaroko dira bilkuraren egunetik aurrerako ondorioekin.

4. PUNTUA.- Hitzarmena NABlrekin toki entitateetan berdintasun politikak sustatzeko.

Toki esparruan berdintasun politikak sustatzeko NABlrekin sinatu ohi den hitzarmena berritzea proposatu da. Hitzarmen horri jarraiki, NUKFk gehienez ere 35.000 euroko dirulaguntza jaso ahalko du; betiere, Federazioak 10.000 euroko ekarpena egiteko konpromisoa hartzen duelarik hitzarmenaren baitan egiten diren jarduerak finantzatzeko.

Aurten, honakoak dira hitzarmenean jasotzen diren jarduera nagusiak: aholkularitza teknikoa genero indarkeriaren alorrean; prestakuntza-ekintzak egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa integratzeko prestakuntza-ibilbidearen arabera, toki entitateetako teknikari eta politikarientzat; berdintasun politiketan jardunbide egokien dokumentu bat egitea; eta jardunaldi bat egitea jardunbide horien inguruan bai eta Berdintasuneko Foru Legearen inguruan ere.

Jarduera horietako batzuetan, laguntza tekniko berezia kontratatu beharko denez, hitzarmena onetsi ondoren, kontratazio horiei bide emanen zaie.

ERABAKI DA:

Akta honi eranskin moduan atxikitzen zaion hitzarmena onestea eta lehendakaria gaitzea beharrezkoak diren laguntza teknikoko kontratazioak egin ditzan.

5. PUNTUA.- Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra sustatzeko Bulegoaren jarduerak egiteko esparru-hitzarmena.

Hitzarmen hori sinatzea proposatu da, Hondakinei buruzko Foru Legearen 18. artikuluko aurreikuspenetan oinarrituta, hondakinak prebenitzeko bulegoari dagokionez. Artikulu horren arabera, prebentzio

jardueretan toki entitateek, hondakinen ardura duen erakundeak eta hondakinen kudeatzaileek parte hartuko dute.

Idazkariak azaldu duenez, hasiera batean ez zen NUKFren zeregina ulertzen hitzarmenean Federazioari ez baitagokio jarduerak egitea ezta horien kostua beregain hartzea ere. Hala adierazi zioten Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari. Hala ere, departamentuak hitzarmenaren edukia azaldu zion NUKFri: egin nahi diren prebentzio-jarduera guztiak barne hartuko dituen plan bat egitea. Hala, Hondakinen Kudeaketarako Partzuergoak eta Iruñerriko Mankomunitateak proposatzen dituzten jardueraz gain, edozein toki entitatek mota horretako jardueraren bat proposatzea erabaki dezake. Hori dela eta, Federazioak proposatu zuen, NUKFren zeregina balizko proposamen horiek bideratzea eta hitzarmenak aurreikusten duen koordinazio organoan horiek adieraztea izan zitekeela. Izan ere, organo horretan NUKFk izendatutako toki entitateen ordezkari bat baitago.

Departamentuak berriro ere azpimarratu zuen hitzarmenaren helburu nagusia prebentzio alorrean jarduketa koordinatua lortzea dela.

Onespenera jarriko den testuak aldaketa batzuk ditu NUKFren zeregina argi uzteko.

Jakinarazienez, gaur bertan aldaketa bat igorri diote federazioari Iruñerriko Mankomunitateak proposatuta. Aldaketa honakoa da: zuzendaritza organoan Partzuergoaren eta Iruñerriko Mankomunitatearen ordezkari bana gehitzea eta ez soilik hondakinen erakundea ordeztuko duen ordezkari bakarra; izan ere erakunde hori ez baita sortu oraindik.

Jakinarazi dute halaber, hitzarmena sinatu ondoren, zuzendaritza organo horretarako toki entitateen ordezkari bat izendatu beharko dela.

Hitza eman zaie bertaratutakoei.

Oroz jaunak, Urdiaingo alkateak, esan du ez duela oso argi ikusten, batez ere, NUKFren rola.

Halaber, Hondakinen Planaren Jarraipen Batzordearen inguruan galdetu du bera izendatu baitzuten batzorde horretako ordezkari.

Jakinarazi diotenez, hori Batzorde ezberdin bat da eta federazioak bi ordezkari izendatu zituela gogorarazi dute.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, adierazi du abstentziora joko duela Hondakinen Funtsari buruzko Foru Dekretuan egin zuen moduan.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, esan du prebentzio-jarduerak sustatuko eta koordinatuko dituen norbait behar dela.

Oroz jaunaren, Urdiaingo alkatearen, ustetan zeregin hori bulegoak berak hartu behar du beregain.

Ferrer jauna, Erriberako Mankomunitatearen lehendakaria, ere iritzi berekoa da eta koordinazioa Gobernuari dagokiola esan du.

Gehiengoz, 7 abstentzio daudela,

ERABAKI DA:

Hondakinen Prebentziorako eta Ekonomia Zirkularra sustatzeko Bulegoaren jarduerak egiteko esparru-hitzarmena sinatzea onestea.

6. PUNTUA.- Protokoloa Kuna Nafarroako Kultur Kudeaketako Profesionalen Elkarterekin.

Kuna elkarterekin protokolo bat onestea proposatzen da elkarlana sendotzeko xedearekin. Izan ere, gai askotan elkarlan hori gauzatzen ari baita, jada, praktikan.

Protokoloaren helburua da bi erakundeen arteko lankidetzarako jarduera-esparru orokor bat ezartzea, batez ere tokiko kultura-politikak hobetzeko, Nafarroako Gobernuaren kultura-jarduerak eta -politikak baloratzeko, aztertzeke eta proposatzeko, udaletako kultura-programetarako laguntza-deialdiak egiteko, etab. Hitzarmenean, halaber, lankidetzaren planteatzen da jardunbide egokiak aztertzeke eta sustatzeko, kultura-teknikarien lanpostuak betetzeko deialdietan parte hartzeke, urteko prestakuntza-ekintzak definitzeke, eta hala eskatzen duten toki entitateei aholkularitza profesionala emateko kultura-kudeaketako proiektuak abian jartzeke, etab.

Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita, aho batez,

ERABAKI DA:

Akta honi eranskin moduan atxikitako Kuna Nafarroako Kultur Kudeaketako Elkarterekin egindako protokoloa sinatzea onestea.

7. PUNTUA.- Protokoloa Nafarroako Gobernuarekin 2021eko herrietako jaien eta udako kultur jardueren inguruan.

Lehendakariak apirilaren 22an Nafarroako Gobernuarekin izandako bileraren berri eman du. Bertan izan ziren, zehazki, Osasuneko kontseilaria eta NUKFren Toki Araubideko Foru Batzordeko ordezkariak. Bileran, osasun egoeraren berri eman eta udarako aurreikuspenak izan zituzten hizpide; birusaren aldaera berrien inguruko kezka berezia adieraziz. Bilera horretan, protokolo bat artikulatzea komeni zela planteatu zen, aurreko urtekoaren antzeko baldintzetan, festarik ez ospatzeko gomendioarekin.

Ondoren, Nafarroako Gobernuak igorritako protokoloaren zirriborroa azaldu dute.

Batzorde Betearazlearen kideei protokoloaren inguruko iritzia galdetuta, Maya jaunak, Iruñeko alkateak, hartu du hitza. Protokoloa bozkatzearen aurka azaldu da Batzorde Betearazleko ordezkariak ez

dituztelako udal guztiak ordezkatzeko eta udal bakoitzak, araudiari eta osasun protokolei men eginez, egoki ikusten duena egin beharko lukeela iritzita.

Toquero jauna, Tuterako alkatea, bat dator eta NUKFk alkate guztien izenean hitz egiteko eskumenik ez duela esan du. Tuteran, herriko jaien datetan ekitaldi isolatuak eginen direla jakinarazi du.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, esan du NUKFk eta udalek osasunaren alde egin behar dutela, uneoro zein egoeratan gauden jakinda. Halaber esan du protokoloak aurreikusi egiten duela osasun egoeraren arabera idatziaren edukia berrikusteko aukera eta, horregatik, ez datorrela bat Navarra Sumako ordezkariekin.

Oroz jauna, Antsoingo alkatea, ez dago ados protokoloan ageri den kaleko zezen ikuskizunen eta ferianteen inguruko erreferentziarekin. Gobernuarekin egindako bilera ere aipatu du, bertan inork ez baitzuen zalantza jarri NUKFren ordezkagarritasuna. Adierazi du NUKFk osasun irizpideek diotenarekin bat egin behar duela.

Zehaztu du aipatu duen bileran argi adierazi zirela egungo osasun egoerarekin ez zela egokia jaiak ospatzea eta birusaren aldaera arriskutsuen inguruko kezka ere adierazi zirela. Protokoloari helduta esan du, aurreko urtekoaren antzekoa dela. Salbuespena zezen ikuskizunak eta puzgarriak zein feriantek direla adierazi du eta horiek protokoloan sartzeko asmoari buruz ez zirela ezer esan. Azken jardura horiei dagokienean adierazi du Gobernuak halako jarduerak protokolizatu nahi baditu hala egin dezala baina orain ez dagokiola horiek protokoloan sartzeko. Oroz jaunaren iritziz, protokoloa aurreko urteko baldintzetan berridatzi beharra dago baina aipatu bileran emaniko osasun datuekin justifikatuz eta horri garrantzi handiagoa emanez. Hori kontuan harturik protokoloa aldatzea eskatu du.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, esan du Gobernuak ez dela ezer debekatzen ari. Gomendioak, jarraibideak dira alkateek euskarri bat izan dezaten kontrolaezina izan daitekeen ezer ez antolatzeko. Horregatik uste du aurreko urtean egin bezala, aurten ere protokoloa onetsi beharra dagoela.

Segura andreak, Alesbesko alkateak, adierazi du aurreko urtea eta honakoa ezberdinak direla. Protokoloaren onespina zalantza jarri du udarako talde immunitatea ziurtaturik baitago.

Oroz jaunak, Antsoingo alkateak, udalen egoera osasun egoeraren arabera zehaztu behar dela azpimarratu du berriz ere eta arduratsuak izan beharra dagoela jaiak ez ospatzeko gomendioa babestuz.

Toquero jaunak, Tuterako alkateak, esan du berak, jada, jardura kontrolatu batzuk egin dituela eta osasuna eta suspertze ekonomikoa uztartu egin behar direla.

Alvarez jaunak, Castejongo alkateak, protokoloaren lehenengo puntuko hirugarren paragrafoaren esanahiaren inguruan galdetu du eta esan du argi badago ez direla jaiak ospatzeko, ez duela arazorik ikusten jaiak ez ospatzeko gomendioa egiteko.

Romero jaunak, Aranguren Ibarreko alkateak, adierazi du ez dagoela ezer bertan behera utzi beharrik ez baitago ezer antolatuz, baina uste du NUKFk osasun publikoa bermatzeko alde egin behar duela.

Bea jaunak, Cintruenigoko alkateak, esan du ez duela ulertzen zergatik jarri behar ote diren denak ados alkateek osasun agintaritza badira. Jaiak, ez dira ezagutzen ditugun moduan eginen eta horren jakitun direla esan du, hortaz, bere ustez ez da horri buruzko iritzirik eman beharrik.

Unzue jaunak, Agoizko alkateak, zalantza du osasuneko gomendioak jarraitzen ari ote diren edo medikutara jolasean ari diren. Haren ustez, Osasun Departamentuaren osasun irizpideen arabera, udal bakoitzak herritarrei egoeraren berri eman behar die eta azaldu zer egin daitekeen eta zer ez.

González andreak, Vianako alkateak, esan du berak herritarrak babesteko Osasun Departamentuak dioena eginen duela. Berak protokoloa gomendio gisa hartzen du eta ez du arazorik ikusten gobernuko lehendakaritzatik egin dituzten zehaztapenekin hura onesteko.

Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, berriz ere azpimarratu du protokoloak gomendio bat biltzen duela eta hura onetsi beharra dagoela toki entitate guztientzako makulua delako. Jarduerak egiteko protokoloei dagokienean berriz, esan du Gobernuari adierazi ziotela horiek onesteko eta udalei ahal bezain laster helarazteko.

Uste du ongi legokeela denbora tarte bat ematea protokoloaren testuari ekarpenak egin ahal izateko.

Maya jaunak, Iruñeko alkateak, berriro ere adierazi du Navarra Sumaren ordezkarien jarrera dela akordiorik ez sinatzea eta, kasua bada, Osasun Departamentuak toki entitateei gomendioak jakinarazi diezazkiela.

Egon diren ekarpenak kontuan harturik, lehendakariak esan du oinarrizko dokumentu bat eginen duela esandako guztiak bilduta eta Batzorde Betearazlearen ordezkariari igorriko diela ekarpenak egin ahal izateko. Protokoloa onestea ona dela uste du alkateentzako lagungarria dela bat etorrita. Jaien datetan jarduerarik ez egiteko gomendioa dakarren paragrafoari dagokionean adierazi du Osasun Departamentuak mezu argia helarazi nahi duela eta mugikortasuna ekidin. Berriz ere aipatu du dokumentuak pandemiaren eboluzioaren arabera protokoloa berrikusteko aukera jasotzen duela.

Ondoren, adierazi du protokoloak Barneko Zuzendari Nagusiak zezen ikuskizun herrikoiak zezen plazak ez diren bestelako tokietan egiteari buruz emaniko ebazpena aipatzen duenez, puntu honetan jorratu beharreko gaia dela. Azaldu duenez, abeltzainak eta toki entitateen ordezkariak partaide zituen lantalde batean entzierroak egiteko protokolo bat egin zen. Baina protokolo hori ez da oraindik onetsi. Lehendakariaren iritziz, NUKFk ez du protokolo horren inguruko iritzirik eman behar pandemia honetan onartu diren protokoloetako bat gehiago delako.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, azaldu du lantalde horretan parte hartu zuela baina protokoloaren testua ia osorik Nafarroako Gobernuak egin duela.

Oroz jaunak, Antsoaingo alkateak, lehenik eta behin, zezen ikuskizunen alorrari errespetua adierazi dio baina uste du NUKFk ez duela protokoloaren inguruko iritzirik eman behar; edozein kasutan, Osasun Departamentuak berretsi beharko lukeela uste du.

Fabo jaunak, Martzillako alkateak, ere uste du NUKFk ez duela kaleko zezen ikuskizunen protokoloa berretsi behar.

Gai horri dagokionean,

ERABAKI DA:

Esandako guztiak bilduko dituen dokumentu berri bat egitea eta Batzorde Betearazlearen kide guztiei igortzea ekarpenak egin ditzaten.

Kaleko zezen ikuskizunei buruzko protokoloari dagokionean, erabaki da NUKFk ez duela bere iritzia eman behar. Izan ere, uste baita Osasun Publikoko Institutua dela protokoloa berretsi behar duena ondoren onetsia izan dadin.

8. PUNTUA.- Laguntza- eta orientazio-zerbitzua kontratatzea Next Generation EU programaren eta Urte Anitzeko Finantza-esparruaren inguruan.

Lehendakariak azaldu du Batzorde Betearazlean, Next Generation programaren inguruko laguntza eta orientabidea jasotzeko laguntza teknikoa kontratatzea komenigarria litzatekeela aipatu zela. Hori ikusita, NUKFko zerbitzu teknikoek toki entitateei Europako funtsei buruzko informazioa eta aholkularitza eskaini ahal izateko beharrak eta kontratatu daitezkeen zerbitzuak biltzen dituen proposamena egin dute.

Proposamen hori Zabala Innovation Consulting enpresari igorri zitzaion Europako funtsen alorrean esperientzia eta jakintza handia duela iritzita. Enpresak NUKFren beharrei egokitzen zaion zerbitzu-proposamena igorri zion federazioari eta honako bilkuraren dokumentazioarekin batera igorri da. Beraz, zerbitzu-proposamena Batzorde Betearazleari aurkeztu zaio egoki ikusten badu, hura kontratatzeko.

ERABAKI DA:

Zabala Innovation Consulting enpresak aurkeztutako zerbitzu-proposamenari onespena ematea eta lehendakaria gaitzea hura kontrata dezan.

9. PUNTUA.- Lehendakariaren informazioa.

Lehendakariak honako gai hauek aipatu ditu:

- Toki Administrazioaren Zuzendari Nagusiarekin egindako aldizkako bilerak. Honakoak jorratu dira: Europako funtsak, txertaketa, Toki Inbertsioen Planaren erreserba-obra, ibilgailuen zergari buruzko lantaldea, kaleko zezen ikuskizunen protokoloa, Toki Inbertsioen Plan berrirako bilera eskaera, Europako finantzazioaren balizko hazkunde gehigarria, kontu-hartzaileen leku-aldaketa prozesuak eta prozesu murriztuak. Aurten igerilekuen inguruan dauden aurreikuspenei buruz ere galdetu zen.

- Apirilaren 15ean Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuko kontseilariarekin izandako bilkura bikote egonkorren inguruan lankidetzarako hitzarmen bat proposatzeko. Apirilaren 21erako bilkura bat deitua du federazioak toki administrazioari eragiten dioten Erregistro Zibilaren eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren arau-aldaketak jorratzeko.
- Apirilaren 22an Eskubide Sozialetako Departamentuarekin izandako bilkura Europako funtsen inguruan eta gizarte zerbitzuak modernizatzerako bideratutako funtsen banaketaren inguruan.
- Apirilaren 23an Abeltzaintza eta Nekazaritzako Zuzendari Nagusiarekin izandako bilkura Animaliak Babesteari buruzko Foru Legea eta alor horretan inbertsioak egiteko laguntzak jorratzeko. Federazioak malgutasuna eskatu zuen lege hori garatzerakoan eta animaliak hartzeko zentroak sortu eta finantzatzeko planifikazio baten beharra aldarrikatu zuen. Federazioari jakinarazi ziotenez, alor horretarako laguntza deialdi batean lanean ari dira.
- Apirilaren 23an Vidsigner-en ordezkaria den Artaiz Asesoría Tecnológica aholkularitza enpresarekin izandako bilera sinadura biometrikoaren, urruneko sinaduraren eta sinadura elektronikoaren inguruan.
- Apirilaren 26an Justiziako Kontseilariarekin izandako bilkura elizak immatrikulaturiko ondarearen gaia jorratzeko. Unzue jaunak, Agoizko alkate eta gaia lantzeko sortutako lantaldearen koordinatzaileak, jakinarazi duenez Justiziako Departamentuak dituzten immatrikulaturiko ondareen zerrenda bat prestatzen ari da 3.000 jabetza baino gehiago biltzen dituen. Zerrenda hori Parlamentuari eta NUKFri igorriko diote zerrendan dauden toki entitateei informazioa helarazi ahal izateko. Departamentua Gobernu gisa zer egin dezaketzen pentsatzen ari da: aholkularitza eman, herri-ondarearen defentsa beregain hartu eta abar. Federazioak lantaldean egiten ari direnen berri eman zuen.
- Apirilaren 30ean egindako bilkura Nafarroako Gobernuako Artxibategien Zerbitzuko Joaquín Llansorekin. Udaletan administrazio elektronikoa ezartzen ari diren enpresen auditoretzari buruz egin nahi duten proiektu baten berri eman zion NUKFri, artxibo digital seguruaren baldintzak betetzen dituzten ikusteko.
- Apirilaren 30ean Animsaren Kudeatzailearekin izandako bilera. Administrazio elektronikoari buruz egin duten proiektu baten berri eman zioten NUKFri. Proiektua Nafarroako Gobernuari aurkeztu diote Next Generation programan sartu ahal izateko.
- Maiatzaren 4an Herritarrekiko Harremanetako Departamentuarekin izandako bilkura. Bertan, Europako Bauhaus berriaren diziplina anitzeko lantalde baten sorreraren berri eman zioten NUKFri modu konbinatuan eskuragarritasuna, artea eta kultura lantzeko. Finean, gizartearen beharrei erantzungo dien kultur-proiektu bat da. Toki esparruan proiektu pilotuak abiatu nahi dituzte eta, hortaz, toki entitateen iritzia kontuan hartu behar dute.
- Maiatzaren 5ean musikarien elkarteekin izandako bilkura sektorearen batasuna eta Nafarroako Gobernuarekin eta toki entitateekin lan egiteko prestasuna adierazteko. Udarako plan bat eskatu zioten NUKFri kontratatze beldurrik ez egoteko eta Nafarroako enpresak aintzat hartuz.
- Maiatzaren 7an Tesicnor enpresarekin izandako bilkura toki entitateetako larrialdiko planen inguruan. Babes zibila kudeatzeko lankidetzara publiko-pribatua proposatzen dute.
- Maiatzaren 7an jaiei buruz Lekunberriko eta Zizur Nagusiko alkateekin izandako bilkura. Haien kezka adierazi zuten eta irizpideren bat onetsi behar ote den jakin nahi zuten.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

10. PUNTUA- Galde-eskeak.

Bea jaunak, Cintruenigoko alkateak, kontu-hartzaileak kontratatzeko zerrendak egitea komeniko litzatekeela adierazi du. Hautaketa prozedura bat egin beharko dutela esan du, indarrean dauden zerrendetan jenderik ez dagoelako. Horregatik, uste du toki administrazioak zerrenda berri bat egin beharko lukeela.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, lehendakari jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hamalauak eta hogeita hamar direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta lehendakariarekin sinatu dut.

LEHENDAKARIAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Juan Carlos Castillo Ezpeleta jn.

Berta Enrique Cornago and.